

53. FITXA GIPUZKOA – Gipuzkoako kostaldeko udalerriei hondartzetan sorospen zerbitzua eskaintzeagatik 2024ko laguntzak

Nori zuzendua: hondartzetan sorospen zerbitzua emateagatik 2024ko ekitaldian gastuak egin dituzten Gipuzkoako Lurralde Historikoko itsas ondoko herrietako udalak

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [1428/2024 Foru Agindua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako kostaldeko udalerriei hondartzetan sorospen zerbitzua eskaintzeagatik 2024ko laguntzak emateko deialdi publikoa onestekoa](#)

Eremuak: Salbamendua eta segurtasuna

Zenbatekoa: 117.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/11/04

Laburpena

Dirulaguntzen xedea da Gipuzkoako kostaldeko udalerriei hondartzetan sorospen zerbitzua eskaintzeagatik 2024ko laguntzak ematea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira **langileak aldi baterako kontratatzea; Gurutze Gorriarekin edo DYArekin egindako kontratuak edo hitzarmenak; hornidurak kontratatzea eta segurtasun-elementuak alokatzea** (balizak, megafonia eta seinaleak); bai eta salbamendu-zerbitzu hori ematea helburu zuzena eta eskusiboa duten **antzeko beste batzuk** ere.

Elementu berriak erosteko inbertsioa ekitaldi honi egotziko zaio, aurreikusitako bititza operatiboaren zati proportzionalean.

Fabrika-obretan edo elementu finkoetan egindako inbertsioak ez dira diruz lagunduko, baldin eta iraunkorrak badira.